

## **FILOSOFIA II**

### *A AUKERA*

-“ Baina, esan nuen nik, zentzuz jokatzuz gero, gogoratuko litzaioke begiak era batera eta arrazoi bigatik lausotu ohi direla: argitatik ilunpetara eta ilunpetik argitara aldatzeagatik. Gogoarekiko ere arrazoi biok gertatzen direla onartuz gero, norbait ikustean ikaraturik eta gauza bat usmatzeko ezindurik, ez luke arrazoirik gabe barrerik egingo eta bai aztertuko luke eta bizitza argitsuagotik ilki eta ohiturarik ezaz itsuturik dagoenentz ala ezjakin handiagotik argitara etorririk, distira handiagoak itsuturik ote dagoen. Lehenengoari zorionak emango genizkioke bere bizitza-egoeragatik eta bigarrenaz urrikalduko ginatke horregatik barre egin nahi balu. Zinez hau ez litzateke hain barregarri izango harentzat, goiko argitasunetik baletor “

Platon: Errepublika VII.

### **GALDERAK**

#### **1.-TESTUA ULERTZEA**

1.1.-Formula ezazu testu honetan ukitzen den gaia eta egizu gaian garatzen diren ideia nagusien laburbilduma.

1.2.-Azal ezazu hitz edo esaldi azpimarratuena esangura.

(3 punturaino balioetsiko da)

#### **2.- TESTUINGURAKETA**

Erlaziona ezazu testu honen edukia autorearen pentsamenduarekin eta bere garaiarekin. Nahi baduzu, ondoko galderen inguruan egin dezakezu:

2.1.Erlaziona ezazu testuaren edukia Haitzuloko Mitoan islatzen diren bi munduekin eta ezagupenaren prozesuan arimak egin ditzakeen erruekin.

2.2. Azal ezazu Platonek bizi izandako ingurugiro historiko eta kulturala eta zehatz itzazu sofisten pentsamenduarekin dituen desberdintasunak.

(4 punturaino balioetsiko da)

#### **3.- IRUZKIN KRITIKOA**

Presta ezazu idazketa labur bat testuaz zeure iritzien arrazoiak emanez. Idazketa, nahi baduzu, ondoko galdera batzuen edo guztien inguruan egin dezakezu:

- Gure gizartean, jakintzaren gizartea delakoan, zure ustez, gizarte honek jakintzaren arloan duen jarrera nagusia egiari begira dago ala beste balio batzuei? Arrazoitu zeure erantzuna.

- Iluntasuna eta argia, ongia eta gaizkia, egia eta gezurra bereizteko zailtasunaren aurrean, zeintzuk dira, zure ustez, oinarrizko okerraren iturburuak gaur egun?. Azal ezazu zeure erantzuna.

(3 punturaino balioetsiko da)

## **FILOSOFIA II**

### *B AUKERA*

“Baina era berean jakitea eta ulertzea esperientziari baino gehiago arteari dagozkiola uste dugu, eta jakintsuagotzat hartzen ditugu arte-gizonak esperientzia-gizonak baino, jakinduria kasu guztietan jakiteari dagokiola pentsatuz. Eta hori, lehenengoek kausa dakitelako eta besteek ez. Esperientzia-gizonek gertakaria jakiten dute, baina ez zergatia; besteek, berriz, zergatia eta kausa dakizkite. Horregatik obra-maisuak kasu bakoitzean langile hutsak baino baliotsuago, ikasiago eta jakintsuagotzat ditugu, egiten ari direnean kausak dakizkitelako”.

Aristoteles: Metafisika I.

### **GALDERAK**

#### **1. TESTUA ULERTZEA**

- 1.1. Formula ezazu testu honetan ukitzen den gaia eta egizu gaien garatzen diren ideia nagusien laburbilduma.
- 1.2.
- 1.3. Azal ezazu hitz edo esaldi azpimarratuen esangura.

(3 punturaino balioetsiko da)

#### **2. TESTUINGURAKETA**

Erlaziona ezazu testu honen edukia autorearen pentsamenduarekin eta bere garaiarekin. Nahi baduzu, ondoko galderen inguruan egin dezakezu:

- 2.1. Zein da, testuaren arabera, jakite nagusia? Erlaziona ezazu egilearen filosofiarekin.
- 2.2. Azal ezazu Aristotelesekin bizi izan zuen ingurugiro historiko eta kulturala, eta zehatz itzazu Platonen pentsamenduarekin dituen desberdintasunak.

(4 punturaino balioetsiko da)

#### **3. IRUZKIN KRITIKOA**

Presta ezazu idazketa labur bat testuaz zeure iritzien arrazoiak emanez. Idazketa, nahi baduzu, ondoko galdera batzuen edo guztien inguruan egin dezakezu:

- Pertsona aditua jakintsutzat har dezakegu soil-soilik bere arloko gorabeherak dakizkielako?
- Gaur egun, jakintsuari balio handiagoa ematen al zaio teknikariari baino?. Nolako ondorioak ekar litzakete jakinduria gutxiesteak eta gauzen azken kausa eta helburuak ezagutzeari garrantzirik ez emateak?

(3 punturaino balioetsiko da)